

Ebazpena: R020/2023

Espedientea: 48/2015

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita SSL zergapekoaren zerga-egoitza zehaztea, 2014ko urriaren 29an eratu zenetik. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 48/2015 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- SSL 2014ko urriaren 29an eratu zen, zerga-egoitza Getxoko (Bizkaia) T kaleko 5. zenbakian zuela, eta objektu soziala arrainaren, itsaskien eta kontserben merkataritza zela.

2.- BFAk zerga-egoitza egiaztatzeko prozedura hasi zuen. Prozedura horretan, 2015eko martxoaren 11n, bisita bat egin zen egoitzara. Egitan, abokatu-bulego bat zen; alegia, SSL bertan helbideratzea baimendu zioten bazkideetako bati, mesede pertsonal gisa.

3.- 2015eko martxoaren 17an, SSLk Basauriko (Bizkaia) MERCABILBAOra aldatu zuen bere egoitza soziala.

4.- 2015eko maiatzaren 5ean, BFAk bisita bat egin zuen egoitza berrira. Bulegoak hutsik zeuden, eta ez zegoen inor.

Aldameneko bulegoetan MERCABILBAOko Albaitaritza Zerbitzua dago. Bertan azaldu zutenez, 116. postuko bulegoak beti hutsik zeuden eta emakida FBSAk zuen.

FBSAren egoitza nagusian MBA andreak eman zien arreta. Hark esan zuen 116. postuaren emakida FBSAk zuela, eta bertan lan egiten duten pertsona guztiak FBSAko langileak direla, AAF andrea izan ezik, hark baimena baitu arrain freskoa saltzeko, bai bere izenean, bai PYMASLen bidez.

Errolda-egiaztapenaren prozeduraren bidez, zergetan eragina duten inguruabar hauek egiaztatu ziren:

a.- Hiru bazkideek Kantabrian dute zerga-egoitza.

b.- Administratzaile bakarra JGG bazkidea da.

c.- JLPR jauna ahalordeduna da eta haren zerga-egoitza ere Kantabrian dago.

d.- SSLk kontuak ditu BBVA, La Caixa eta Bankiako Kantabriako sukurtsaletan.

e.- 12 langile ditu, eta, enpresaren adierazpenen arabera, sozietatearen zentro guztietan daude, MERCABILBAOn barne.

f.- Lan-arloa Bilboko (Bizkaia) AGk kudeatzen du.

g.- Sozietateak 2 etxebizitza, garaje bat eta trasteleku bat ditu Kantabrian.

h.- Administratzaile bakarrak dio sozietatea arrainaren handizkako salmentan aritzen dela MERCABILBAOko 116. postuan eta frankiziak eratzen dituela.

i.- SSLk kontratu bat sinatua du AAF andrearekin, arraina sal dezan MERCABILBAOn.

FBSAko ordezkariak ez zuten kontratu hori ezagutzen.

j.- SSLk ez zuen fakturarik egin 2014an.

k.- Web-orrian eta mezu elektronikoetan Kantabriako helbidea ageri da.

5.- Aurreko zantzuak ikusita, BFAk 2015eko maiatzaren 21ean proposatu zion ZAEARI SSLren zerga-egoitza aldatzea, eratze-datara arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

6.- 2015eko irailaren 30ean, ZAEAK uko egin zion egoitza aldatzeko proposamenari.

Horretarako, zergetan eragina duten honako egitatezko inguruabar hauetan oinarritzen zen:

a.- 2015eko ekainaren 2an, egoitza-aldaketa bat inskribatu zen berriro Merkataritza Erregistroan, eta MERCABILBAOn (Basauri, Bizkaia) kokatu zen, MERCABILBAOko errentamendu gisa.

b.- SSLren garajea 2015eko otsailaren 25ean erosi zitzaion AAF andreari, sozietatearekin zuen zor baten ordainetan.

c.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datu-basea kontsultatu ondoren, entitatea kotizazio-kontu bakar baten titularra da; enpresaren egoitza Getxoko (Bizkaia) T kalean du, eta jardueraren egoitza, aldiz, MERCABILBAOn, Basaurin (Bizkaia). Hari atxikita daude besteren konturako alta orokorreko 10 langile. Horietatik zortzik lurralde erkidean dute egoitza (Kantabrian gehienak) eta bik Bizkaian.

Kontratazio gehienak 2015ean egin ziren.

d.- 2015eko uztailaren 3an, bisita bat egin zen T kaleko egoitzara, eta egiaztatu zen ez zegoela inolako loturarik SSLrekin.

e.- 2015eko irailaren 17an, bisita bat egin zen MERCABILBAOko egoitzara, eta JG eta JLP jaunek eman zieten arreta.

Egunero FBSAren eta SSLren arraina saltzen den postura joan, eta bertan ikusi zuten soinean bigarrenaren arropa korporatiboa zuten langileak zeudela.

f.- SSL FBSAren hornitzailea da MERCABILBAOn egiten diren handizkako salmentetan, eta hark fakturitzen die bezeroei.

Trukean, FBSAk komisio bat eta kuota finko bat ordaintzen dizkio SANS CAB Iri.

g.- Bulegoan mahaiak eta ordenagailuak zeuden, baita langile bat ere.

h.- Bilboko AG zerga- eta lan-aholkularitzaz, administrazio-gaiez eta kontabilitatea eramateaz arduratzen da.

7.- 2015eko urriaren 8an, BFAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

8.- 2017ko urriaren 5ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen BFAREN erabakia, SSLren IFZ errebokatzea.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera; artikuluko horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Zergapekoaren zerga-egoitza

Alderdien alegazio-idazkietatik eratorzen dira zergetan eragina duten inguruabar gehigarri hauek, SSLren zerga-egoitzari dagokionez:

a.- ZAEAREN datu-basean, zergapekoaren diru-sarrerak eta gastuak baino ez daude jasota, 2015. urtekoak, eta BFArekiko datu-trukean ez dago jasota 2016ko BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztu zirenik.

b.- SSLk jarduera hauek egiten ditu:

- Esportaziorako arrain-salmenta, zeina SSLk zuzenean fakturatzen baitu.
- Arrainaren zuzeneko salmenta MERCABILBAOn, FBSAREN bitartez, hark AA andrearekin sinatutako kontratuaren bidez.
- Arrain-salmenta ostalaritzari, zeina SSLk zuzenean fakturatzen baitu.
- Frankiziak eratzea.

Administrazioek egiaztatutako zantzuak kontraesankorrak dira. Hori, zalantzarik gabe, une desberdinetan lortu direlako da, nahiz eta denboran gertukoak izan. Kontuan hartuta sozietatea 2014. urtearen amaieran eratu zela, 2015. urtearen hasieran jarduerarik ez izatea edozein jarduera ezartzeko prozesuaren berezko alderditzat jo daiteke.

Horregatik, alderdiek egiaztatutako inguruabarren balorazio orokorrari esker, esan daiteke bulego bat dagoela MERCABILBAOn, Basaurin. Instalazio horixetan lokal bat du, eta (ZAEAKO funtzionarioen bisita egin denean)

enplegatu gehienek bertan burutzen dute sozietatearen jardura nagusia. Gainera, entitatearen kontratazio orokorra lokal horretakoa dela egiaztatzen da. Bulego horretan, bai administratzaile bakarraren eta ahalordedunaren egoitzatik gertu dagoelako, bai agerraldia bertan egin delako, litekeena da negozioak bertatik zuzentzea. Bestalde, AGk ere Bizkaian egiten du entitatearen administrazio-kudeaketa.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

- 1.- Adieraztea ez dela egokia SSL zergapekoaren zerga-egoitza aldatzea, eratze-datara arteko atzeraeraginezko ondorioekin.
- 2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta SSLri.